

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 25koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Publiko Bateratuen 2025-2026 ikasturterako eskola-egutegia egiteko arau osagarriak zehazten dituen.

Arau hauen arabera egin beharko da Lanbide Heziketako Ikastetxe Publiko Bateratuen 2025-2026 ikasturterako eskola-egutegia:

1.- Lanbide Heziketako Ikastetxe Publiko Bateratuetako **irakasle guztiak** irailaren 1ean joango dira ikastetxera, 2025-2026 ikasturtearen hasierarekin zerikusia duten jarduerak egiteko. Lanbide-heziketako sistema berria ezartzeagatik, eskola-jardueren hasiera aurreratu egingo da aurreko ikasturteekin alderatuta, baina jarduera horiek ezin izango dira hasi 2025eko irailaren 3a baino lehen. Lehenengo eskola-jarduera 2025-2026 ikasturtea aurkezteko erabili ahal izango da.

2.- **Lanbide Heziketan, Oinarrizko Mailan, Erdi Mailan, Goi Mailan eta Espazializazio Kurtsoetan**, gutxienez **175 eskola-egun** egin behar izango dira, eta horietatik **165 (33 aste)**¹ **curriculum** emateko saioak izango dira (**benetako eskola-saioak**), **900 ordutik beherako Espezializazio Kurtsoen kasuan izan ezik; kasu horretan, iraupena zati proportzionala izango da**. Curriculum emateko egun horien artean sartu ahal izango da ikasturtea aurkezteko saioa. Curriculum emateko aipatu diren 165 egun horietan, ezin izango da saiorik bertan behera utzi azterketak, ebaluazio-batzarrak, klaustroak edo antzeko beste jarduera batzuk egiteko. C mailen lotutako eskaintzek haren iraupenari egokitzen zaion egutegia izango dute.

3.- Ikastetxean curriculum ematen den egun bakoitzean, **gutxienez 30 minutuko** atsedena egin beharko da.

4.- **Beranduenez, ekainaren 19an amaituko da 2025-2026 ikasturteko eskola-aldia** (curriculum emateko saioak + erreklamazio-ekintzak). Eskola-aldiaren azken egunetik ekainaren 26ra arte, 1. ikasturteko amaierako 2. ebaluazio-probak (LOE) eta/edo 1. ikasturteko amaierako aparteko ebaluazio-probak (LOGSE) egingo dira, baita ikasturtea berrikusi eta ebaluatzeko berriarazko zereginak, programazioak, urteko memoria eta egin behar diren gainerako administrazio-ekintzak ere.

Nolanahi ere, probak, erreklamazioak egitea eta notak ematea:

A. A,B eta C graduak:

Amaitu ondoren, eta beranduenez, ekainaren 26an.

B. D graduak (LOE Zikloak):

a) 1. ikasturteko 1. amaierako ebaluazioa

¹ Erizaintzako Zaintza Osagarrien EMHZN (1540 ordu), lehenengo mailan 165 eskola-eguneko iraupena izango du gutxienez. Bigarren mailan, zikloaren iraupena kontuan hartuta ezarriko da egutegia, eta ikasle guztiei curriculumak ezartzen duen ordu-zenbaketa osoa ematen zaie bertan.

- b) 2. ikasturteko 1. amaierako ebaluazioa
- C. D graduak (LOGSE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko amaierako ohiko ebaluazioa
 - b) Zikloko ohiko amaierako ebaluazioa
- D. E graduak (Espezializazio kurtsoak):
 - a) 1. amaierako ohiko ebaluazioa

Kasu hauetan beranduen jota ere, **ekainaren 5ean** burutuko dira.

Probak, erreklamazioak egitea eta notak ematea honako hauetan ere:

- A. D graduak (LOE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko 2. amaierako ebaluazioa
 - b) 2. ikasturteko 2. amaierako ebaluazioa
- B. D graduak (LOGSE Zikloak):
 - a) 1. ikasturteko amaierako ezohiko ebaluazioa
 - b) Zikloko ezohiko amaierako ebaluazioa
- C. E graduak (Espezializazio kurtsoak):
 - a) 2. ikasturteko amaierako ebaluazioa

beranduen jota ere, **ekainaren 26an** burutuko dira.

C, B eta A mailetako probak amaitu ondoren egingo dira, ikasturte bakoitzeko deialdi bat izango dute B eta A mailetako probek, eta bi deialditako C mailakoek.

Ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko planetan dabiltzan ikasleen jarduera-egutegia egitean, bete egin beharko da plan bakoitzaren oinarri den eta arauz onetsi den horri buruzko dokumentu, kontratu edo akordioan ezarritakoa.

5.- Erronketan oinarritutako ikasteko metodologia berriak EZARRI EZ DIREN zikloetan, 60 minutukoa izango da eskola-saio bakoitza; hala ere, zeharkako konpetentzien garapenarekin lotutako beste proiektu batzuk egiten direnean ikasleekin, astean egun bat hartu ahal izango da horretarako, gutxienez 55 minutuko 7 eskola-saio egiteko.

6.- Erronketan oinarritutako ikasteko metodologia berriak EZARRI DIREN zikloetan, egunean gutxienez 6 ordu eman beharko dira curriculumeko konpetentziak garatzen, ebazpen honetan atsedenaldirako ezarri den gutxienerako denbora errespetatuz.

7.- Hezkuntza-ikasturte bakoitzeko azken ikasturtearen amaiera-datak ezartzean, kontuan izan beharko da noiz egin behar diren hurrengo irakaskuntza-mailetan sartzeko prozedurak; izan ere, prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatu beharko zaie ikasleei.

8.- Ezinbesteko arrazoiak direla-eta eskola-egunak gutxituko balira, **egutegia egokitu** egingo da ezarri diren egun guztiak bete ahal izateko, betiere langileen lan-eskubideak errespetatuz.

Ikasleak eskoletara joan ez arren, nahiz eta kolektiboak izan, ikastetxeak berdin jarraitu beharko du ofizialki programatutako ordutegien arabera eskaintzen eskolak.

Egutegia egokitu behar den kasuetan, hasierako egutegia egiteko erabili den prozedura berari jarraitu beharko zaio. Gobernu Organo eskudunak egutegia egokitzeko proposamenik egiten ez badu, proposamen hori egiteko eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzak. Erantzunik izan ezean, Hezkuntza Ikuskaritzak berak berregingo du egutegia, eta ikastetxeari jakinaraziko dio.

9.- Eskola-egutegia egiteko, **jaiegunak izango dira autonomia-erkidegoko** urte horretako **lan-egutegi ofizialean jaiegunak direnak, baita lurralde historikoko eta herriko zaindarien jaiegunak ere**. Jaiegun horietako bat ere ezin izango da kontabilizatu eskola-egunen barruan, ez eta benetako eskola-saioak emateko egunen barruan ere.

Ikastetxeek, hala nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute Lanbide Heziketaren zaindariaren eguna (urtarrilaren 31, San Joan Bosco), eta egun horretan bertan edo hori ordezteko aukeratzen duten beste egun batean ospatu ahal izango dute. Jaiegun hori ezin izango da kontabilizatu eskola-egunen barruan, ez eta benetako eskola-saioak emateko egunen barruan ere.

10.- **Gabonetako oporretan, gutxienez**, 2025eko abenduaren 24tik 2026ko urtarrilaren 6ra arteko egunak sartu beharko dira, biak barne.

11.- **Aste Santuko oporretan, gutxienez**, 2026ko apirilaren 2tik 6ra arteko egunak sartu beharko dira, biak barne.

12. Eskola-egutegiaren proposamena izapidetzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduaren (EHAA, 2008ko apirilaren 25ekoa) 9. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Egutegi-proposamena bidaltzeko azken eguna **2025eko maiatzaren 30a** izango da. Hurrengo ikasturterako eskola-egutegiaren proposamena bidaliko diote ikastetxeetako zuzendariak dagokien hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari. Horrekin batera, Gobernu Organo eskudunak proposamena onetsi zueneko bileraren aktaren kopia ere bidali beharko dute.

Hezkuntza Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dute ikastetxeek proposamena, Hezkuntza Ikuskaritzaren argibideei jarraituz.

Ikastetxearen ardura izango da egutegiaren proposamena egitea.

13.- Baldin eta ikastetxeren batek ez badu proposamenik bidaltzen adierazitako epearen barruan, edo bidali duen proposamena onartzen ez bada, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzak ezarritako egutegia adjudikatuko zaio ofizioz.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Jon Mirena Labaka Intxauspe
LANBIDE-HEZIKETAKO SAILBURUORDEA